

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Kondentsazioa



Igor Estankona



Hitz Margotuak

KARLOS ARETXABALETA
MIKEL MANSO

Ilustratzailea: Jon Amorrortu
EME, 2016

Karlos Aretxabaletak (Kigali, 1990) eta Mikel Mansok (Gurutzeta, 1990) Jon Amorrortu deustuarra hartu dute bidelagun, azken hau ere adinez kidekoa, jar diezaien euren poesiari marrazkia. Zuri-beltzeko ilustrazioa, sano koloretsuak begitandu zaizkidan poementzako. Liburua atera zaie soil bezain dotorea. Belaunaldi bat ordezkatzan dute hiruek sarean dabilena, literaturaz badakiena, freskotasan itzelarekin atrebitzen dena idaztera bizitzari buruz: “Xake partida mahai gainean,/ Marko Aurelio dut aurkari./ Arrazoia epaile”. Belaunaldi horrek berak egiten du editore, beretzat argitaratzen du batez ere, zirkuluak ditu atsegin. Babes horretan idatzia baina haizatzeko eta aipatzeko modukoa, *Hitz Margotuak* ez dakit aurkitzeko erraza edo zaila izango den, baina merezi du ikusteak zelan ezkontzen diren askotan eskarmenturik eza eta maisutasun berezkoa.

Mikel Manso errepikapenen, hoskidetasunen eta jokoan zaleagoa da. Errima ere badarabil. Uluen moduko lerro laburrak eta jendeen lehen berba labur eta biluziak ditu maite. Surrealismora egiten du batzuetan, lo-kantara edo baladara bestetan: “Ezin jakin, ezin igirri/ baie hor eukiko nozu/ negarra sikitako,/ odola garbitako,/ kerixa argitako/ airean mogitako/ barre iteko, zuretzako”. Jolastia baina sakona, kapaz da amari buruz hitz egiteko umeen xalotasunarekin, eta gai tribialak janzteko eite klasikoarekin.

Karlos Aretxabaleta kontrapuntua da, oster. Poesia deskriptiboa, poesia filosofikoa. Pieza batzuk ia-ia narrazioaren alorrean daude, istorioak kontatzen ditu: “Behin batean ume-umea nintzela,/ lagun batek,

lotsaturik, begietara/ zuzenean begira eta eskuetatik helduta/ horrela aitortu zidan:/ – Nire bihotza mintzo da”. Eta gertakizun mundutarrekin urreratzen da munduaren esentziara.

Liburuan ez dago edertasunaren bilaketa bakarrik. Batez ere ahots propioaren bilaketa dago. Literaturan modu batera edo bestera kokatu, autore biek ala biek dute joera mamira joatekoa, hitz egiteko beharrianak gidatuta. Zuzenago zein zeharka, mamuak astintzeko grina opatzen digute: “Mundua- rekiko eta biziarekiko dugun ikuspegiaz mintzo gara, gure irrikak marrazkiez osatuz”. Irudiak eta bi bide, liburu honetan gurtzatzen direnak. Bata hizkuntzaren formen amarru ederren bidea, bestea kontakizunaren plazerarena. *Hitz Margotuak* ahalegin on bat da sublimaziora bidean, uneka asmo hutsean geratzen dena, baina edozelan ere ausarta eta interesgarria. ■

*Karlos Aretxabaleta (Kigali, Ruanda; 1990)
eta Mikel Manso (Gurutzeta, Barakaldo; 1990).*

